

**SOCIEDAD ESTATAL LOTERÍAS Y APUESTAS DEL ESTADO SME SA (SELAE) ETA
PARTE HARTZAILEAREN ARTEKO JOKO KONTRATUA (“Joko-kontratua” edo
“Kontratua”)**

A) ALDERDI KONTRATATZAILEEN IDENTIFIKAZIOA

Joko-kontratu hau sinatzen dute; batetik, Sociedad Estatal Loterías y Apuestas del Estado SME SA enpresak (aurrerantzean “**SELAE**” edo “**Operadorea**”), c/ Poeta Joan Maragall 53, 28020 Madrilen egoitza duena, IFZ A86171964 da eta Madrilgo Merkataritza Erregistroan inskribatuta dago 28078 liburukian, 202. folioan, 8. atalean, M- 505970 orrialdean, 1. sarreran; eta, bestetik, Espainian egoitza duen “**Parte-hartzailea**” edo “**Erabiltzailea**”, bere datu pertsonalak dira SELAEk horretarako eskuragarri jarri duen erregistro-orrian sartu direnak.

SELAE loteria-jokoak merkaturatzeko mugagabe izendatutako operadoreetako bat da, jokoak arautzeko maiatzaren 27ko 13/2011 Legean araututakoak, bere lehen xedapen gehigarriaren arabera.

Bestalde, SELAE Jokoa Antolatzeko Zuzendaritza Nagusiko erregistroan (“**DGOJ**”) zehazten diren hiru joko-lizentzia orokorren (beste joko, apustu eta lehiaketa batzuk) eta bi lizentzia bereziren (elkarrekiko kirol-apustuak eta zaldi-lasterketetako apustuak) titularra da. Lotura honen bidez eskura daiteke: <https://www.ordenacionjuego.es/es/op-SELAE>

B) KONTRATUAREN HELBURUA ETA IZAERA

Kontratu honen xedea da operadorearen eta parte-hartzailearen arteko harreman juridikoa arautzea, operadoreak bere plataformaren bidez eskaintzen dituen jokoetan parte-hartzaileak jokatzegatik sortutakoa, "loteriasyapuestas.es" domeinuan edo SELAEren aplikazio mugikor ofizialetan; erabiltzaileen erregistroak eta jokoaren kontua kontratuarekin lotuta geratuko dira.

Joko-kontratuak atxikitze-kontratuaren izaera du eta Partaideak agerian onartzen duenean formalizatuko da, hurrengo klausulan ezarritako baldintzetan.

SELAEk bere jokoak Internet bidez eskaintzen ditu estatu mailan, horregatik «.es» luzapena erabiltzen du. SELAEk ez du, inola ere, jokoetan parte hartzea eskaintzen lurralde eremu horretatik kanpo.

C) PARTE HARTZAILEAK KONTRATUA ONARTZEA

Parte-hartzaileak kontratua espresuki onartu beharko du SELAEk eskaintzen dituen jokoetan parte hartzeko. Kontratua onartzean, beheko D) atalean zehazten diren jokoen arau partikularrak onartzen dira ere bai.

Halaber, Plataformaren bidez eskaintzen diren joko jardueretan erregistratzeko eta parte hartzeko beharrezkoa da berariaz onartzea jokoa arautzen duten Erabilera Baldintzak, baita Datu Pertsonalen tratamenduari eta babesari buruz ezarritako xedapenak ere.

Parte-hartzaileak joko-kontratuaren ageriko onarpena adierazi beharko du, operadoreak horretarako gaitutako edozein mekanismoren bidez. Mekanismo horiek joko-kontratuaren ondorengo edozein aldaketa berariaz onartzeko erabiliko dira, eta alderdien arteko harreman juridikoa arautzeko ere bai. Horretarako, operadoreak, erabiltzailearen erregistroaren bidez, joko-kontratuaren kopia bat jarriko du parte-hartzailearen eskura, deskargatzeko; orobat, haren aldaketak ere jarriko ditu bere eskura, agerian onar ditzan.

D) DEFINIZIOAK

Kontratu honetan, honako termino hauek azaldu bezala ulertuko dira:

- **Joko-kontua:** Joko-kontua da parte-hartzaileak irekitako kontua, bere erabiltzaile erregistroarekin loturikoa. Jokoarekin lotutako ordainketa eta kargen mugimendu ekonomiko guztiak erregistratzen dira bertan.
- **DGOJ:** Jokoa Arautzeko Zuzendaritza Nagusia da, edo edozein unetan jokoa gainbegiratzeko eta erregulatzeko eskumenak dituen entitatea, estatu mailan merkaturatutako bitarteko elektronikoa, informatikoa, telematikoa edo interaktiboaren bidez.
- **Lotobolsa:** Zorro birtuala da, joko-kontuaren menpe dago eta egindako eragiketarik ordaintzeko eta, hala badagokio, 2.000 eurotik beherako zenbatekoak kobratzeko erabiliko da. Kontratu honetako E) eta F) ataletan araututako mugen mende dago. Lotobolsaren saldoak ez du ordainsaririk edo inolako interesik sortuko parte-hartzaileentzat.
- **Online parte-hartzea SELAE jokoetan ("Parte-hartzea"):** SELAEk bere Plataforman merkaturatutako joko baten apustu baten edo gehiagoren zati bat eskuratzea da, bakarka edo Plataforman erregistratutako beste erabiltzaile batzuekin batera. Eskuratzea SELAEri apustu bat zuzenean erosteagatik gertatzen da (erregistratutako jokalariei batek edo gehiagok).
- **SELAEren online merkaturatze-plataforma ("Plataforma"):** SELAE jokoak urruneko online kanal interaktiboetatik merkaturatzeko sarbidea ahalbidetzen duen hardware eta software multzoa da. Horrek barne hartzen ditu ordenagailu pertsonalak, telefono mugikorrak eta Internet bidez erabiltzaileak konektatu dezakeen edozein gailu. Sistema honek, besteak beste, hauexek onartzen ditu: erabiltzaileen erregistroak eta joko kontuak kudeatzeko funtzioak, aurreikuspenak edo partaidetzak prestatzea, eskuratzea eta formalizatzea, derrigorrezko zenbatekoak kobratzea, eratorritako sariak ordaintzea eta parte-hartzaileari horren berri ematea.
- **Erabiltzailearen erregistroa:** Parte-hartzaileari operadorearen joko-jardueretara sartzeko aukera ematen dion erregistro bakarra da erabiltzailearen erregistroa; erregistro horretan bilduko dira, besteak beste, parte-hartzailearen identifikatzeko datuak eta haren eta operadorearen arteko transakzio ekonomikoak egitea ahalbidetzen duten datuak.
- **Jokoen arau zehatzak:** Plataformaren bidez eskaintzen diren jokoen oinarritzeko araudia eta arau partikularrak. Horiek parte-hartzaileak eskura ditu plataforman.
- **Jokoen sistema zentrala:** SELAEren hardware eta software multzoa da, SELAE jokoen eta zozketen kudeaketarekin zerikusia duten jarduera guztiak prozesatzen dituen, eta terminalen bidez aurrez aurreko kanaletatik eta online kanal interaktiboaren bidez urrunetik jasotako apustu guztiak biltzen dituen.

E) ERABILTZAILAREN ERREGISTROA

i.- Erabiltzailearen erregistroa irekitzea eta aktibatzea. Erregistratzean egin daitezkeen beste ekintza batzuk:

Erabiltzailearen erregistroa parte-hartzaile bakoitzarentzat bakarra delarik, hori gauzatzeko erabiltzaileak plataformaren bidez eman beharko ditu eskatutako datuak, identifikazio dokumentuak eta bestelako formatudun informazioa (bideoa barne), helburu hauetarako:

- Nortasuna kontrastatzea.
- Erabiltzaileak deklaraturako Espainiako zerga-egoitza ziurtatzea
- Jokoen araudian xedaturakoaren arabera, erabiltzaileak jokoen parte hartzeko debeku subjektiborik ez duela egiaztatzea, operadoreak hori kontrolatzeko legezko betebeharra baitu (ikusitu hurrengo ii atala).
- Transakzioen segurtasuna bermatzea.
- SELAEk eskatzen duenean, lotutako saltokia identifikatzea, SELAEren aurrez aurreko merkaturatze-sareko saltokien artean.

Erabiltzailearen erregistroak joko-kontua behar bezala funtzionatu dezan beharrezkoak diren datuak bilduko ditu. Parte-hartzaileak ezin du inola ere erabiltzailearen erregistro aktibo bat baino gehiago izan.

Operadoreak bere nortasuna egiaztatuko du datuak bat datozela egiaztatuz, DGOJk horretarako emandako tresnez eta egokitutako jotzen dituen beste batzuek baliatuta, eta bere nortasunaren egiazkotasuna egiaztatuko du; halaber, erabiltzaileak debeku subjektiborik ez duela ziurtatuko

du, denbora errealean, joko araudian une oro ezarritako ziurtapen eta egiaztapen prozeduraren arabera. Ezarritako eskakizunak gainditu ondoren, erabiltzailea aktibatuko da, parte-hartzailearen nortasuna dokumentatu arte beheko (iii) atalean araututako mugak aplikatzeko kalterik gabe.

Egiaztatu eta/edo ziurtatu ezin bada, joko araudian ezarritako prozedurei jarraituko zaie, eta horrek erabiltzailearen erregistroa irekitzea ukatu dezake. Nortasunaren egiaztapena eta debeku subjektiborik ez izateko egiaztapena DGOJk horretarako ezarritako zerbitzuak erabiliz prozesatzen dira

Parte-hartzaileak erabiltzailearen erregistroa behar bezala eguneratuta eduki beharko du une oro, aldatu den informazioa eguneratuz SELAEk eskura jartzen dituen tresnen bidez.

Erregistro prozesuan zehar, parte-hartzaileak banku kontu bat eman beharko du, bere erabiltzailearen erregistroarekin lotzeko. Parte-hartzaileak emandako banku-kontua behar bezala eguneratuta mantendu beharko du. Lotura hori derrigorrez egiaztatu beharko da parte-hartzaileak funtsak ateratzeko mugimenduak egin nahi dituenean (adibidez, Lotobolsa deskargatu edo 2.000 euroko edo gehiagoko sariak bildu nahi dituenean). Banku-kontua Espainian jarduteko baimena duen finantza-erakunde batean irekita egon behar da, eta parte-hartzailearen izenean egon behar da. Banku kontu bera erabiltzailearen erregistro bat baino gehiagori lotzeko aukera mugatzeko eskubidea du SELAEk, arauzko arrazoiengatik edo iruzurrezko portaerak prebenitzeko arrazoiengatik egokia baderitzo.

Joko-operadoreak erabiltzailearen erregistroa ukatu ahal izango du, baldin eta parte-hartzailearen joko-kontua aldeztu aurretik bertan behera utzi bada, E) v. (ii), (c) eta (e) ataletan aurreikusitako egoerak direla eta.

ii.- Jokoetan parte hartzeko debeku subjektiboak:

Jokoa Arautzeko maiatzaren 27ko 13/2011 Legearen 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, honako hauek debekatuta dute jokoetan izena ematea eta parte-hartzea:

- a) Adingabeek eta legez edo ebazpen judizialez ezgaituek, araudi zibilak ezartzen duenaren arabera.
- b) Jokatzeko aukera borondatez debekatzea eskatu duten pertsonak, edo behin betiko ebazpen judizialaren bidez debekatuta dutenak.
- c) Joko-operadorearen akziodunek, jabeek, partaideek edo titular garrantzitsuek, bertako zuzendariak eta joko-garapenean zuzenean parte hartzen duten langileak, baita beren ezkontideak edo haiekin bizi direnak, lehen mailako arbasoak eta ondorengoak, horiek kudeatutako edo ustiatutako jokoetan aurrekoetako edozeinek zuzenean edo zeharka, hirugarrenen edo pertsona juridikoen bidez parte hartzen badu ere.
- d) Apustua egiten den kirol ekitaldian edo jardueran parte-hartzen duten kirolariak, entrenatzaileak edo bestelako parte-hartzaile zuzenak.
- e) Apustua egiten den kirol ekitaldia edo jarduera antolatzen duten edo bertan parte-hartzen duten kirol-erakundeetako zuzendariak.
- f) Apustua egiten den kirol ekitaldian edo jardueran beren funtzioak betetzen dituzten epaile edo arbitroak, bai eta horien erabakien aurkako helegiteak ebazten dituzten pertsonak ere.
- g) DGOJko presidenteak, kontseilariak eta zuzendariak, baita beren ezkontideak edo haiekin bizi direnak, lehen mailako arbasoak eta ondorengoak, eta jokoaren arloan ikuskapen- eta kontrol-funtzioak dituzten DGOJko langile guztiak.
- h) Arau batek ezar dezakeen beste edozein pertsonak.

iii.- Dokumentuen bidezko identitatea egiaztatzea

Indarrean dagoen araudiaren arabera, SELAEk dokumentuen bidez egiaztatu behar du parte-hartzaileen identitatea, 2019/03/28tik aurrera karga guztiak batuta 150 eurotik gorako zenbatekoa kargatu aurretik, edo sari bat jaso aurretik, zenbatekoa edozein dela ere. Orobat, SELAEk beste egoera batzuetan parte-hartzaileei nortasuna agiri bidez egiaztatzea eskatu ahalko die, arriskuen prebentziorako, iruzurraren prebentziorako edo joko arduratsurako politikek hala zehazten dutenean. Horretarako, SELAEk bere webgunean edo IOS eta Android aplikazio ofizialaren bidez

garatutako dokumentuak egiaztatzeko prozesua gainditu beharko du parte-hartzaileak. Identitatearen egiaztapen dokumentala SELAEk ezarritako zerbitzuen bidez egiaztatuko da. Dokumentuak egiaztatzeko prozesuan, SELAEk parte-hartzaileari nortasun-agiriaren eta aurpegiaren argazki argiak eskatuko dizkio, behar bezala fokatuak; bestela, parte-hartzaileari aurpegia erakusten duen bideoa eska diezaioke, parte-hartzaileak egiaztatzeko baliabide hori hautatu badu. Prozesua guztiz automatikoa izan daiteke edo, zenbait kasutan, gizakiaren esku-hartzea ere egon daiteke.

Atal honetako lehen paragrafoan adierazitako kasuetan parte-hartzailearen nortasuna egiaztatu ezin bada, operadoreak joko-kontua eta erabiltzailearen erregistroa etengo ditu, beheko v atalean xedatutakoaren arabera.

iv.- Erabiltzaile sarbidea:

Erregistro-prozesua amaitutakoan, erabiltzailearen erregistroko eta lotutako joko-konturako sarbideak erregistroaren titularra den parte-hartzailearentzat izango dira soilik.

Parte-hartzaileak sartu nahi duenean sarbide-kredentzial zuzenak eman beharko ditu, operadoreak bere sistemetan egiaztatu dituztenak.

Erabiltzailearen sarbide-kredentzialen erabilera baldintzak hauek dira:

- Parte-hartzaileari esleitutako helbide elektronikoa eta IFZ/AIZ pertsonalak eta besterenezinak dira.
- Parte-hartzaileak konpromisoa hartzen du sarbide-kredentzialak arduraz zaintzeko eta sekretuan gordetzeko.
- Parte-hartzaileak ez dio hirugarren bati inola ere erabiltzailearen erregistroa emango. Parte-hartzailearen arduraren izango da hirugarrenek erabiltzailearen sarbidea eta/edo erabilera eragozteko arretaz jokatzeko.
- Sarbide-kredentzialak edo identifikazio-gakoa aukeratzeaz eta horiek galdu, lapurtu edo baimenik gabe erabili izanaz arduradun bakarra parte-hartzailea izango da, baita horretatik sor litezkeen ondorioez ere.
- Parte-hartzaileak operadoreari jakinarazi beharko dio, ahalik eta azkarren, sarbide-kredentzialak galdu baditu, lapurtu badizkiote edo baimenik gabe erabili badira. Aurreko komunikazioa ere beharrezkoa izango da parte-hartzaileak gertakari horien susmo sinplea duenean. Kasu horretan operadoreak parte-hartzailearen sarbidea etengo du, egoera argitu arte.

Erabiltzaileek urruneko sarbidearen bidez sartzeko aukera izango dute asteko egun guztietan, oporrak barne, etenik gabeko ordutegian, mantentze-lanak direnean salbu. Mantentze lanak behar-beharrezkoak diren eginkizunetara mugatuko dira eta, agindu teknikorik ezean, plataforman jarduera gutxien duten ordutegietan bilduko dira. Ondorio horietarako, mantentze lantzat joko dira, besteak beste: eguneroko jarduera ixtearen ondoriozkoak, datuak bateratzeko eta egiaztatzeko lanak barne, irabazleen zehaztapena, sarien jakinarazpena eta ordainketa, joko-jarduerak berrabiarazteko plataforma leheneratzea eta zerbitzua behar bezala ematen dela ziurtatzeko barneko edozein segurtasun-prozedura.

Joko-operadoreak ez du erabiltzailearen erregistroa aldatuko, plataformaren funtzionamendu egokirako behar-beharrezkoak diren kudeaketa-eragiketak burutzeko izan ezik, edo araudiaren arabera onartzen diren eta parte-hartzaileak eskatzen dituen aldaketak egiteko izan ezik.

v.- Erabiltzailearen erregistroaren eta/edo joko-kontuen erabilera mugatzeko, eteteko eta bertan behera uzteko kasuak:

(i) JOKO-KONTUA ETA/EDO ERABILITZAILEAREN ERREGISTROA ETETEA. ERABILERA ALDI BATERAKO MURRIZTEKO BESTE EGOERA BATZUK:

Operadoreak joko-kontua eta/edo erabiltzailearen-erregistroa **bertan behera utziko** ditu arrazoi hauetakoren bat dela eta, jokoaren araudian ezarritako baldintza eta mugekin:

- DEBEKU SUBJEKTIBOAGATIK: Jokoa Arautzeari buruzko maiatzaren 27ko 13/2011 Legean aurreikusitako debeku subjektiboen kausaren batean parte-hartzailea sartuta dagoela

operadoreak dakienean, adibidez, Jokatzeko Debekuen Erregistro Orokorrean inskribatuta dagoela baldin badaki.

- PARTE-HARTZAILEAREN BORONDATEZ (norbere burua baztertzea): Parte-hartzaileak joko-konturako sarbidea mugatzeko eskubidea erabiltzen duenean (norbere burua baztertzea), berak erabakitako aldian zehar aurrez ezarritako aukeren artean; etenaldi hori ezeztatzina izango da epe horrek irauten duen bitartean. Norbere burua baztertzea SELAEn parte hartzeari mugatuta dago, norbere burua debekatzeko eskubidea ez bezala, non edozein operadoreen joko-jardueretan parte hartzeaz baztertuta egongo den, Jokatzeko Debekuen Erregistro Orokorrean inskribatuta geratuko baita.
- PARTE-HARTZAILEAREN BORONDATEZ (baja eskaera EDO DATUAK BERTAN BEHERA UZTEKO ESKUBIDEA ERABILTZEAK): Parte-hartzaileak erabiltzailearen erregistroan edo joko-kontuan behin betiko baja eskatzen duenean, edo datu pertsonalak babesteko araudiaren arabera bertan behera uzteko eskubidea erabiltzen duenean, parte-hartzaileak eskatutakoa gauzatzeko beharrezkoak diren eragiketak egiten diren bitartean.
- JARDUERARIK EZAGATIK: Parte-hartzaileak plataforman gutxienez bi urtez jarraian ez jarduteagatik. Kasu honetan, parte-hartzaileak erabiltzailearen erregistroa eta dagokion joko-kontua berriro aktibatu ahal izango ditu; horretarako plataforman autentifikatu beharko du erregistroa eten eta lau urteko epean. Jarduerarik gabeko egoera horrek ez dakar datuen blokeorik, joko-kontratuak indarrean jarraitzen baitu.
- ARAU HAUSTEEN, ESKUBIDEEN GEHIEGIKERIAREN EDO JOKO ARDURATSUAREKIN BATERAEZINAK DIREN JOKABIDEEN ADIERAZPENAK: Operadoreak parte-hartzaileak honela jokatu duela uste badu eta horretarako arrazoizko zantzuak baditu: (i) portaera bidegabea, iruzurrezkoa, susmagarria edo desegokia izan duela, edo SELAEntzako arrisku ekonomikoa, korporatiboa edo beste edozein motatakoa izan dezakeena (adibidez, bere Lotobolsaren saldoa kargatzeko eta kentzeko eragiketak egin baditu eta horiek SELAEn jokoan erosketekin zerikusirik ez badute) edo, oro har, SELAEk eskura jarri dituen baliabideak erabiltzean araudia hautsi edo eskubide gehiegikeria izan daitekeen ekintzak burutu dituela, horiek dituzten xede ezberdinetarako, hau da, jokoetan parte hartzea; edo (ii) jokabide arduratsuekin bateraezinak diren portaera arriskutsuak izan dituela, SELAEn joko-eredu eta -politikekin bat etorritz.
- NORTASUNAREN EGIAZTAPENIK EZA: (i) Erabiltzaileen identitate-egiaztapen guztiak bete ez izana, unean uneko araudiaren arabera, (ii) erabiltzailearen erregistroaren beharrezko datuak faltatzea (adibidez, egoitza fiskala); (iii) operadoreak erabiltzailearen erregistroaren datuen zehaztasunik ezaren zentzuzko zantzuak izatea, parte-hartzailearen heriotza barne, edo (iv) operadoreak zentzuzko zantzuak izatea parte-hartzaileak nahigabe identitatea edo pasahitza lapurtu diotela; hori guztia, parte-hartzailearen nortasuna behar bezala egiaztatu arte eta erabiltzailearen erregistroa osorik amaitu arte.
- KAPITAL-ZURITZEA PREBENITZEKO NEURRIAK APLIKATZEA: Besteak beste, (i) Finantza-zigorrek eta kontra-neurriak dituzten parte-hartzaileak, finantza-zigorren eta kontra-neurrien pean dauden pertsonen zerrendan egoteagatik, zerrenda horietan jarraitzen duten heinean; edo (ii) kapital-zuritzea eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko araudian ezarritako diligenzia neurriak egiaztatzeko prozesuan parte-hartzailea egotea, ebaluazio eta egiaztapen prozesuak behar bezala betetzen diren bitartean.
- ENBARGOA: Agintaritza batek adostutako eta SELAEn behar bezala jakinarazitako parte-hartzailearen kreditu eskubideak bahitzen diren kasuan, hala badagokio, erabat bete arte edo bahiketa kendu arte.

Operadoreak bertan behera utzi izanaren eta horrek dituen ondorio nagusien berri emango dio parte-hartzaileari.

Eteteak irauten duen bitartean, parte-hartzaileak erabiltzailearen erregistroaren, joko-kontuaren eta, oro har, plataformaren funtzionalitateak mugatuta izango ditu, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Horrela, esate baterako, araudia hautsi izanaren, eskubide gehiegikeriaren edo kapital-zuritzea prebenitzeko neurriak aplikatzearen zantzuengatik zerbitzua etena duten parte-hartzaileek, ezin izango dute beren joko-kontutik saldirik atera edo saririk kobratu. Salbuespenez, finantza-zigorrek eta kontra-neurriak dituzten parte-hartzaileek bere joko-kontutik saldoa atera edo sariak

kobratu ahalko dituzte, administrazioko agintaritza eskudunak (Ogasuneko Idazkaritza Nagusia edo unean-unean organo eskuduna) halaxe baimentzen badu.

Ondorioz, eteteak irauten duen bitartean, baliteke parte-hartzaileak ezin izatea bere erabiltzailearen erregistroan sartu, SELAE jokoetan parte-hartu, harpidetzak burutu, sariak ezin kobratu edo bere joko-kontuan mugimendu ekonomikorik egin. Aurrekoa gorabehera, parte-hartzailea Jokatzeko Debekuen Erregistro Orokorrean edo Joko Operadorearekin lotura duten Pertsonen Erregistroan sartu bada, jokozalearen borondatezko bazterketa gertatu bada edo jokabide arduratsuarekin bateraezinak diren jokabideen zantzuak badaude, eta horiek badira eteteko kausa, joko-kontutik saldoa atera ahalko du, eta etenaldia baino lehen lortutako sariak jaso ahalko ditu

Operadoreak etetea eragin duten arrazoiak amaitu direla egiaztatu duenean, etenaldiari amaiera emango dio. Aurrekoa gorabehera, parte-hartzailea Jokatzeko Debekuen Erregistro Orokorrean edo Joko Operadorearekin lotura duten Pertsonen Erregistroan sartu bada, operadoreak joko-kontuaren etenaldiari amaiera eman ahalko dio eta jokoetan parte-hartzeko baimena eman ahalko dio, parte-hartzaileak aldeztatik hori eskatzen badu (adibidez, joko-kontratu hau berriro onartzen badu).

Aurrekoaz gain, Kontratu honek irauten duen bitartean, erabiltzailearen erregistroaren, joko-kontuen eta, oro har, plataformaren funtzionalitate guztiak edo batzuk eskuraz ezin edo blokeatuta egon daitezke aldi baterako, bereziki honako egoera hauetan: saioa hasteko gehieneko saiakerakopurua gainditu denean, pasahitzak berrogeialdian daudenean, pasahitzak aldatzen ari direnean eta antzeko etenaldietan.

(ii) ERABILTZAILAREN ERREGISTROA ETA JOKO-KONTUA BERTAN BEHERA UZTEA:

Erabiltzaileak baja eman dezake eta, ondorioz, erabiltzailearen erregistroa eta joko-kontua **bertan behera geldituko dira** arrazoi hauetako bat dela medio:

- (a) PARTE-HARTZAILEAREN BORONDATEZ (BAJA ESKAERA EDO DATUAK BERTAN BEHERA UZTEKO ESKUBIDEA ERABILTZEAK): Beharrezko eragiketak egin ondoren, eskatu duen parte-hartzailearen behin betiko baja prozesatzeko edo baliogabetze eskubidea erabiltzeari dagozkion datu pertsonalen blokeoa prozesatzeko.
- (b) BEHIN BETIKO JARDUERARIK EZAGATIK: Jarduerarik gabeko erabiltzailearen erregistroa eten eta lau urtera jarduerarik ez badago.
- (c) ARAUZKO ARAU HAUSTEAK, ESKUBIDE GEHIEGIKERIA EDO JOKABIDE ARDURATSUAREKIN BATERAEZINAK DIREN JOKABIDEAK: Operadoreak eskatuta, behar adinako irizpen-elementuak baditu, behin egitateak egiaztatu ondoren, aurreko atalean aurreikusitako joko-kontua etetea eragin duten inguruabarrak benetakoak, larriak eta errepikatuak direla kontuan harturik (ARAU HAUSTEEN, ESKUBIDE GEHIEGIKERIAREN EDO JOKABIDE ARDURATSUAREKIN BATERAEZINAK DIREN JOKABIDEEN ZANTZUAK).
- (d) HERIOTZA ETA BESTELAKO EGOERA SUBJEKTIBOAK: Parte-hartzailearen heriotza egiaztatzen denean edo parte-hartzaile izateko ezintasuna baieztatzen duten beste behin betiko egoera subjektibo batzuk gertatzen direla egiaztatzen denean (adibidez, Espainian egoitza ez izatea edo Espainian jarduteko baimendutako finantza-erakunde batean baliozko kontu korrontearen berri ez ematea).
- (e) BESTE ARAU-HAUSTE BATZUK: Joko-kontratu honetako aurreikuspenak betetzen ez direnean (adibidez, behar bezalako ardurako neurriak egiaztatzeko laguntzarik ez izatea edo nortasuna egiaztatzeko operazioak oztopatzea) eta, oro har, parte-hartzaileak kontratu honen pean dituen betebeharrak larriki edo behin eta berriz betetzen ez dituela egiaztatzen denean.

Ezin izango da parte-hartzaileak hala eskatuta erabiltzailearen erregistroa eta joko-kontua baliogabetu, edo datu pertsonalak baliogabetu, parte-hartzaileak apustu aktiboak eta/edo saldoa duen bitartean. Parte-hartzaileak bere joko-kontuan dagoen saldoari agerian eta atzera bueltarik gabe uko egin diezaike.

Apustu aktiboak ezingo dira bertan behera utzi (zozketa edo ekitaldia oraindik gertatu ez izanagatik edo irabazi eta kobratzeko prozesuan egoteagatik); beraz, parte hartzen ari den zozketa edo ekitaldia gertatu arte itxoin beharko da.

Ezeztatu aurretik (eta jarraian zehazten diren salbuespenak salbuespen), parte-hartzaileak SELAERI eska diezaioke bere joko-kontuko saldoa Espainian jarduteko baimena duen finantza erakunde bateko banku kontu batera deskargatzea, edo saldo horri agerian eta atzeraezintasunez uko egitea.

Arestian aipatutako erabiltzailearen erregistroa bertan behera uzten den kasuetan, hots, arau-hausteak, eskubide gehiegikeria edo jokabide arduratsuekin bateraezinak diren jokabideak, edo bestelako arau-hausteen kasuan, SELAEK eskubidea du sarien kobrantza ukatzeko edo joko-kontuko saldoaren deskarga ukatzeko, hori egokitzen jotzen duenean, kontratua amaitzeko arrazoiaren arabera (arau-hausteak eta horietan xedatutakoa, agintarien eskakizunak eta eskubide gehiegikeritzat jo daitezkeen portaeren ondorioak, kontratuko fede txarra).

Erabiltzailearen erregistroa eta dagokion joko-kontua bertan behera utzi ondoren, parte-hartzaileak ezingo du bertara sartu, ezin izango du eragiketarik egin eta ez du SELAERIren komunikazio komertzialik jasoko.

Erabiltzailearen erregistroa bertan behera uzten denean joko-kontratua amaitutzat joko da, eta horrek parte-hartzailearen datu pertsonalen blokeoa dakar.

.F) ERABILTZAILERAK EGIN DITZAKEEN ERAGIKETAK

i.- Joko-kontuan baimendutako eragiketak:

Erabiltzailearen erregistro bakoitzak joko kontu bakarra izango du lotuta.

Joko-kontuak ez du interesik sortzen eta joko-jarduerekin lotutako transakzio ekonomikoak islatzen ditu, besteak beste, operadoreak parte-hartzeko eskaintzen dituen modalitate ezberdinek sortutakoak eta eskaini daitezkeen zerbitzu gehigarriak.

Parte-hartzaileak, bere ardurapean, operadorearekin transakzio ekonomikoak baimentzeko beharrezko datuak eman behar ditu.

Joko-kontuak eragiketa hauek ahalbidetzen ditu, joko bakoitzeko arau partikularretan xedatutakoaren arabera:

- Funtsak sartzea eta ateratzea, kontratu honetan edo joko araudian ezarritako mugen barruan.
- Plataforman eskaintako joko batean, batzuetan edo guztietan banaka edo taldean parte hartzeagatik ordaintzea.
- Eragiketa hauek kontsultatzea:
 - Parte-hartzaileak egindako diru-sarrerak.
 - Jokoetan parte-hartzeko zenbatekoei dagozkien karguak.
 - Operadoreak eman ditzakeen zerbitzu gehigarrien kostuak
 - Operadoreak eskain ditzakeen hobarien ordainketa
 - Parte-hartzaileak lortutako sarien zenbatekoaren gaineko kreditu eskubideak.
 - Parte-hartzailearen joko-kontuko saldoaren eta lortutako sarien zenbatekoaren deskarga operadoreari eskatzea.
 - Denbora errealean kontsultatzea joko-kontuko saldoa eta, gutxienez, azken hirurehun eta hirurogeita bost egunetan izandako partaidetza edo jokaldi guztien erregistroa, jokoaren izaerak, bere arau zehatzen arabera, epe laburragoa gomendatzen duenean salbu; dena dela, ez da inola ere hogeita hamar egunetik beherakoa izango.
 - Metatutako puntuak kontsultatzea, sustapen-eskaintzen kasuan.
 - Parte-hartzailea parte den taldeen jarduera kontsultatzea.
 - Parte-hartzailea parte den taldeetara kide berriak gonbidatzea.
 - Parte-hartzailea parte den taldeak uztea.

- Taldeak sortzea.
- Taldeak kontsultatzea eta gonbidapenak onartzea.
- Parte-hartzaileak onartu dituen taldeetako kideak ikustea.

Parte-hartzailea talde batekoa bada, onartu egiten du partaidetza-modalitate bakoitzeko gainerako parte-hartzaileei datu pertsonal batzuk jakinaraziko zaizkiela. Onarpenaren unean, parte-hartzaileari jakinarazi beharreko datu zehatzen berri emango zaio.

Kasu hauetan ez dira eragiketak onartuko:

- Taldeko apustuen modalitatean parte-hartzaileen joko-kontuetakoren batean saldo hartzekoduna ematen duten eragiketak badira.
- Apustuko parte-hartzaile guztiei lotutako joko-kontuetan nahikoa saldo ez badago; kasu horretan jokoan parte hartzeak ukatuko dira.
- E (v) klausulan azalduko erabiltzailearen erregistroaren erabilera mugatzeko, eteteko eta deuseztatzeko kasuetan.
- Eragiketak jokoetan parte hartzearekin zerikusirik ez duen helburua badu (eskubide gehiegikeria), eta/edo eragiketan joko-kontuaren iruzurrezko erabilera gertatu dela susmatzen bada.
- Eragiketak operadoreari kalte ekonomikoak edo erreputazio-kalteak eragiten badizkio.
- Kapital-zuritzea eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko araudiak debekatzeko baditu.

ii.- Mugak saldoari, sarrerei, jokatu ahal diren zenbatekoei eta deskargei:

SELAEk joko arduratsuaren eta seguruaren aldeko konpromisoa duelarik, parte-hartzaileari muga eta aukera batzuk ezarri dizkio. Hona hemen xehetasunak:

- MUGAK SALDOARI ETA SARREREI

Operadoreak muga ekonomikoak ezarri ditu Lotobolsaren saldorako eta egunero, astero edo hilero, joko desberdinetako parte-hartzaile bakoitzak jaso ditzaketen gordailuetarako. Honako esteka honetan kontsulta daitezke: <https://www.loteriasypuestas.es/es/centro-de-ayuda/lotobolsa/opciones-de-lotobolsa>

Parte-hartzaileak borondatez ezarri ahal izango dizkie mugak bere saldo eta gordailuei, orokorrean ezarritakoak baino txikiagoak badira. Parte-hartzaile bakoitzak eskaera espresuki eta banaka egin beharko du. Gainera, parte-hartzaileak zehaztu ahal izango du zein zenbatekotik aurrera ordainduko zaion banku-kontuan zuzenean, eta ez Lotobolsan.

Parte-hartzaileak sariak ordaintzeko banku-konturik eman ez badu, dirua Lotobolsan ordainduko zaio, erabiltzaileak ezarritako muga edozein dela ere, ordainketa ezin baita beste modu batean egin. Kasu honetan Lotobolsaren saldoak ezarritako muga gainditzen badu, parte-hartzaileari jakinaraziko zaio bere Lotobolsa berehala deskargatu behar duela; kasu honetan, deskarga egin arte parte-hartzaileak ezingo du eragiketa berriak egin.

SELAEk joko arduratsu eta seguruaren aldeko konpromisoa duelarik, lehenengo paragrafoan adierazitako gordailuaren mugak handitzeko edo kentzeko eskaerak ez ditu inola ere onartuko.

- MUGAK JOKATZEKO ZENBATEKOEI

SELAEk joko arduratsuaren aldeko konpromisoa duelarik, aste bakoitzeko gastuan parte-hartzaileak gehieneko muga pertsonala ezar dezake plataforman, betiere aplikatu beharreko araudiak uneoro ezartzen duen muga baino txikiagoa bada eta Lotobolsan dagoen saldoaren muga osagarriarekin. Jokatzeko saiatzen den bakoitzean, plataformak azken astean zehar egindako apustuen zenbatekoa kontrolatuko du (astelehenetik igandera), balio hori gandi ez dezan.

- MUGAK DESKARGEI

Segurtasuna eta joko arduratsua bermatzeko, SELAEk Lotobolsan saldoa deskargatzeko muga hauek ezarri ditu: gehieneko deskarga-kopurua 24 orduetan: 1; eta gehieneko deskarga-kopurua astean: 2.

iii.- Jokoetan parte-hartzea eta parte-hartzeagatik ordainketa:

Erabiltzailearen erregistroa behar bezala amaitu denean eta indarrean dagoen bitartean, saldirik badago eta parte-hartzeko debekurik ez badago, parte-hartzaileak plataformako jokoetan parte har dezake, dagozkien arauak arautzen dituzten mota eta modalitateen bidez; horiek eskuragarri daude merkaturatze modu honen bidez.

Apustuak egiteko modua interneten edo aplikazio informatikoen bidez parte hartzeko dagozkien arauetan ezarriko da.

Plataformak apustuak automatikoki egiteko aukera emango du, txartelaren irudi birtual batean markatzeko aukera emango du edo, hala badagokio, beste edozein modu eskainiko du. Araututa dauden jokoetan frogagiria jasotzeko, plataformak ausaz zenbaki bana emango dio ordainagiri birtual bakoitzari, eta horren berri emango zaio parte-hartzaileari, bere apustua gauzatzeko unean.

Parte-hartzea baliozkoa izan dadin, behar bezala eta garaiz erregistratuta agertu behar du Sistema Zentralean, eta ezin da deuseztatuta agertu. Jokoetan parte-hartzea, bakarka edo taldean, pertsonala eta besterenezina da. Ondorioz, SELAEk irabazitako sariak soilik ordainduko dizkio aurretik erregistratutako eta apustua egin duen parte-hartzaileari, edo parte-hartzaileei taldek-jokoa bada. Ezin da saririk partekatu erregistratu gabeko parte-hartzaile batekin, edo taldeko partaide ez den norbaitekin.

Jokoetan parte hartzeagatik ordaintzeko eta joko-kontuetan dirua sartzeko, SELAEk uneoro ahalbidetzen dituen ordainketa moduak erabiliko dira, parte-hartzailearentzako kosturik edo komisiorik gabe; horri buruz plataforman behar adina informazio egongo da.

Parte-hartzea formalizatu aurretik, plataformak ordaintzeko funtsen hornidura egingo. Lotobolsan funts nahikorik badago, ordaintzeko une horretan dagoen saldoa erabiliko da eta parte-hartzaileari eragiketa baieztatzeko eskatuko zaio. Ordaintzeko beharrezkoa den saldirik ez badago, parte-hartzaileak dirua sartu beharko du baieztapen hau eskatu aurretik. Transakzioaren gehieneko zenbatekoa mugatuta dago aurreko F) ii atalean xedatutakoaren arabera.

Ordainketa baieztatu eta onartu ondoren, parte-hartzea sistema zentralera bidaliko da, balioztatzeko. Sistema zentralak egiaztatuko du sartzeko epearen barruan dagoen ala ez. Ez badago, parte-hartzaileari egoera hori jakinaraziko zaio eta eragiketari uko egingo zaio.

Jokoa etena izateagatik edo hura garatzea eragozten duen beste edozein kausagatik operadoreak parte-hartzaileari ordaindutako zenbatekoak itzuli behar badizkio, itzulketa operadoreak erabakitzen duen moduan egingo da, joko bakoitzaren arau zehatzei jarraiki.

Eragiketak erregistratu ondoren, parte-hartzaileari apustu, jokaldi edo iragarpen bakoitzaren edukiarekin laburpen bat aurkeztuko zaio, onartutakoak eta baztertutakoak zeintzuk diren zehaztuz, halakorik balego.

Plataformak emandako agiriak informazio helburuetarako baino ez du balio. Ez da baliozko frogagiria izango sariak kobratzeko eta ezin da eragiketa ordaindu izanaren frogagiritzat hartu. Ondorio horietarako baliozko frogak bakarrik sistema zentralean agertzen den erregistroa delarik, horrek segurtasun neurri egokiak ditu.

Jokoan parte-hartzea formalizatu aurretik, parte-hartzaileak ziurtatu behar du jokoaren, zozketaren edo gertaeraren datuak ondo hautatu dituela. Jokoen konfigurazioa eta lotutako segurtasun neurriak direla eta, behin SELAEren joko batean parte-hartzea formalizatuta dagoenean, irmoa izango da, eta ezin da parte-hartzea bertan behera utzi, ezeztatu edo atzera egin.

Jokoan parte-hartzearen eduki zehatzari buruzko desadostasunak daudenean (apustua, jokaldi edo pronostikoa), joko-kontratu honetako bi alderdiek onartzen dute azken kontrola izango dela operadorearen barne kontrol sistemako eragiketen eta transakzioen erregistroa. Horrek guztiak ez du esan nahi parte-hartzaileak legezko eta kontratuzko auziak ebazteko moduetako batera jotzeko ahalmena ez duenik, operadorearen erabakien aurrean bere eskubide eta interes legítimoak babesteko.

iv.- Sarien ordainketa:

Operadoreak jokoaren arau partikularretan ezarritako prozedura eta ordainketa bideak jarraituko ditu sariak ordaintzeko.

Operadoreak 2.000 eurotik beherako sariak erabiltzailearen Lotobolsan ordainduko ditu. Parte-hartzaileak baliozko kontu korrantea eman badu, F) ii atalean (Mugak saldoari eta sarrerei) azaldutako Lotobolsako sarreraren muga gainditzen duten zenbatekoak, edo parte-hartzaileak konfiguraturako muga txikiagoa gainditzen dutenak, eta gehienez ere 2.000 eurora arte, berehala transferitutako dira parte-hartzaileak emandako kontura.

2.000 euroko sariak edo sari handiagoak, zenbateko horretatik gorako sariak kobratzeko parte-hartzaileak emandako banku-kontuan ordainduko dira. Parte-hartzaileak goian adierazitako zenbatekoko sariak edo sari handiagoak kobratzeko bere jabetzako banku-kontua egiaztatu beharko du, kapital-zuritzea, jokoaren iruzur-jokabideak eta iruzur teknologikoak saihesteko arrazoiak direla eta. SELAEk ez du saririk ordainduko parte-hartzaileek egiaztatu ez dituzten kontuetan. Parte-hartzaileek edozein unetan egiaztatu ahal izango dute plataforman saria jasotzeko erabili nahi duten kontua, saria irabazi eta 3 hilabeteko epean, gehienez. Epe hori igarota, zuzenean SELAErekin harremanetan jarri beharko du, bezeroarentzako arreta zerbitzuko inprimakiaz baliatuta (<https://www.loteriasyapuestas.es/es/contacto>).

Kapital-zuritzea prebenitzeko eta eragiketen trazabilitatea bermatzeko, Espainian jarduteko baimena duten finantza entitateetako parte-hartzailearen jabetzako banku-kontuak ez diren beste ordaintzeko moduak ez dira onartuko. SELAE salbuetsita egongo da parte-hartzaileak adierazitako kontu-zenbakira transferentzia egitean.

Kapitalak zuritzeari eta terrorismoa finantzatzeari buruzko araudian xedatutakoa betetzeko, eta bidegabeko, iruzurrezko edo arriskuzko jokabideak saihesteko eta, oro har, arau-haustea edo eskubide gehiegikeri-jarduketak saihesteko, operadoreak informazioa edo dokumentazioa eskatu ahal izango du, parte-hartzaileak sariak jasotzeko eman duen banku-kontuaren titulartasuna agiri bidez egiaztatzeko; halaber, operadoreak ahalmena izango du zenbatekoen ordainketa atxikitzeko edo horiek eskuratzea galarazteko, kontratu honen E) atalean ezarritakoaren arabera bidezkoa denean.

Edozein sari ordaindu baino lehen, plataformak egiaztatuko du sariak ordaintzea eragozten duen egoerarik ez dagoela, kontratu honetako baldintzen arabera.

SELAEk ez du sariak ordaintzeagatik kudeaketa-gasturik edo zenbatekorik kobratzen.

v.- Jakinarazpenak:

Plataformaren bidez parte-hartzean, erabiltzailearen erregistroaren egoerari eta bilakaerari, joko-kontuari, talde jokoei, kide den taldeei eta joko-kontuko transakzioei buruzko informazio hobea lortzeko jakinarazpenak jasoko dira. Nolanahi ere, Plataformak eskaintzen duen oinarriko zerbitzuaren osagaitzat hartzen da zerbitzu informatiboaren oharrak bidaltzea, hala nola mantentze-lanetarako geldialdiak, araudiaren edo kontratuen aldaketen abisuak, eta joko-kontratuak kudeatzeko eta burutzeko beharrezkoak direnak. Jakinarazpenak hainbat kanalen bidez bidali ahal izango dira, SMS, posta elektronikoa edo beste modalitate batzuk barne (adibidez, push jakinarazpenak). Jakinarazpen horiek ez dute inolako kargu edo betebeharririk parte-hartzailearentzat.

G) PARTE-HARTZAILEARI ESKAINTZEN ZAIZKION PARTE-HARTZEKO MODALITATE OSAGARRIEN ZERRENDA, PREZIOA ETA ORDAINTZEKO MODUA

Joko-kontratua indarrean dagoen bitartean, SELAEk banan-banan eskaintzen dituen apustuak egiteko eta sariak kobratzeko funtzionalitate nagusiarekin batera, parte-hartzeko modalitate osagarriak eskura jarriko dizkio parte-hartzaileari, erabiltzailearen erregistroaren bidez; horien baldintzak, prezioak eta ordaintzeko modua aurrerago deskribatuko dira. Hona hemen horietariko batzuk:

- a) Apustuak automatikoki errepikatzeko zerbitzuak ("**harpidetzak**" eta "**erosketa eskaerak**" Loteria Nazionalen): plataformak parte-hartzaileari aukera ematen dio apustu bera automatikoki errepikatzeko, edo antzeko ezaugarriak dituen, etorkizuneko zozketetarako (aurrerantzean "**harpidetzako apustuak** "). Parte-hartzaileari uneoro jakinarazten zaizkio errepikapen-kopurua eta apustu bakoitzaren prezioa. Harpidetzako apustuen ondorengo formalizazioari dagokionez, zerbitzu hori automatikoki eta ahalegin hobeko moduan emango da, irabazteko bermerik gabe, eta baldintza hauek bete beharko dira: plataforman harpidetza eginez apustu bakoitza formalizatzeko aukera teknikoa, zozketa bakoitzerako eskaintzaren erabilgarritasunaren arabera adierazitako ezaugarriekin apustua egiteko aukera, eta erabiltzailearen erregistroaren edo joko-kontuaren gaineko inolako eragozpen praktiko edo legalik ez izatea, adibidez apustua ordaintzeko behar adinako krediturik ez izatea. Nolanahi ere, zuzen errepikatutako apustua berehala erregistratuko da joko-kontuan, eta bertan agertuko da edozein joko-transakziorako ezarritako epean. Parte-hartzailearen erantzukizuna da harpidetzako apustuak formalizatzeko emaitza ziurtatzea; izan ere, parte-hartzaileak edozein ekintza burutzen badu alde aurretik joko-kontua kontsultatu gabe eta ondoren erreklamazioa aurkezten badu, hori ez da onartuko. Dena dela, operadoreak parte-hartzaileari jakinaraziko dio, automatikoki hobeko moduan, harpidetzako apustuak zuzen bideratu direla. Errepikapen automatikoaren zerbitzua doakoa da, eta plataformak formalizatzen dituen apustuak baino ez dira ordaindu beharko. Ez da inola ere aurretik ordaindu behar.
- b) Ohiko edo gogoko apustuak kudeatzeko laguntza zerbitzuak ("**Gogoko apustuak** "): Plataformak hainbat funtzionalitate ditu parte-hartzaileak apustuak gorde eta kudea ditzan, sariak egiazta ditzan, eta ondoren ohiko eta gogoko apustuak errepika ditzan. Funtzionaltasun horiek ez dute inolako kargu edo betebeharririk parte-hartzailearentzat.
- c) Taldeak kudeatzeko eta hainbat parte-hartzailearen arteko apustuak egiteko zerbitzua: plataformak hainbat funtzionalitate ditu, plataforman taldeak kudeatzeko eta parte-hartzaile ezberdinek osatutako taldeko apustuak formalizatu eta kudeatzeko, eta izan litezkeen sariak banatzeko. Funtzionaltasun horiek ez dute inolako kargu edo betebeharririk parte-hartzailearentzat; dena dela, baliteke funtzionaltasuna erabiltzeko baimenak eman behar izatea.
- d) Operadoreak dauzkan tituluen eta lizentzien barruan definitzen dituen eta parte-hartzaileari jakinarazten dizkion bestelako zerbitzuak.

H) PARTE-HARTZAILEARI ESKAINTZEN ZAIZKION ZERBITZU OSAGARRIEN ZERRENDA, PREZIOA ETA ORDAINTZEKO MODUA

SELAEk parte-hartzaileari aurrerago azaltzen diren informazio edo komunikazio zerbitzu osagarriak eskaini ahal dizkio. Horiek guztiz doakoak izango dira parte-hartzaileentzat, baina SELAEk ez du bermatzen zailtasun tekniko zehatzik edo erabilgarritasun galerarik gertatuko ez denik.

Parte-hartzaileak komunikazio horiek aktibatu edo desaktibatu ahal ditu, erabiltzaile-profileko aukeren bidez. SELAEk zerbitzua bertan behera uzteko aukerari buruzko informazioa emango du (eta hori egitea erraza izango da), eta eskubideei buruzko informazioa emango du ere bai, nolatan ere, indarrean dagoen araudia betez:

- a) Hurrengo zozketak, emaitzak eta zerbitzu gehigarriak posta elektronikoz, SMS bidez edo operadoreak ezar ditzakeen beste kanal batzuen bidez jakinaraztea (operadoreak kanal bakoitzean komunikazioak ezartzeko aukera gordetzen du, zerbitzu bakoitzaren arabera): parte-hartzaileak adierazi ahal izango du noizbehinkako jakinarazpenak jaso nahi dituen,

bere borondatez eta erabat doan, honako hauen gainean: funtzionalitate-aldaketak, jokoan dauden poto garrantzitsuenak, etorkizuneko zozketei eta iraganeko zozketen emaitzei buruzko informazioa, albiste-buletina eta plataforman portaerarekin lotutako informazio erabilgarria. Iraganeko zozketaren emaitzei buruzko informazioaren barruan, hauek daude:

- Emaitzen banakako komunikazioak: parte-hartzaileak interesatzen zaizkion jokoei buruzko informazioa izan dezan, zozketa bakoitzeko eta egun bakoitzeko emaitzak eta sarien banaketa biltzen dituen jakinarazpenak eskaintzen dizkio operadoreak. Zerbitzu hori automatikoki eta ahalegin hobeko moduan emango da, jatorrian bidalketaren bermerik gabe eta jasotzaileak jasotzen duela bermatu gabe; bertan dagoen informazioak ez du balio ofizialik izango.
- Asteko emaitzen laburpenaren jakinarazpena: aurreko zerbitzua bezala, emaitzen komunikazioa asteroko laburpen formatuan eska daiteke. Kasu horretan, asteko zozketak amaitzean bidaliko du operadoreak. Zerbitzu hori automatikoki eta ahalegin hobeko moduan emango da, jatorrian bidalketaren bermerik gabe eta jasotzaileak jasotzen duela bermatu gabe; bertan dagoen informazioak ez du balio ofizialik izango. Jakinarazpen horiek ez dute inolako kargu edo betebeharririk parte-hartzailearentzat.
- b) Plataformako produktu eta zerbitzu berriei buruzko informazio komertziala, posta elektronikoz, SMS bidez edo operadoreak ezar ditzakeen beste kanal batzuen bidez (operadoreak kanal bakoitzean komunikazioak ezartzeko aukera gordetzen du, zerbitzu bakoitzaren arabera): parte-hartzaileak adierazi ahal izango du noizbehinkako jakinarazpenak jaso nahi dituen, bere borondatez eta erabat doan, informazio komertzialarekin, eta plataformaren erabilerekin zerikusirik ez dutenak zertan izan behar. Komunikazio horiek joko eta zerbitzu berriei buruzko informazioa dute. Jakinarazpen horiek ez dute inolako kargu edo betebeharririk parte-hartzailearentzat.
- c) SELAEk aldi-aldi egiten dituen inkestak abiarazteko komunikazio elektronikoak, posta elektronikoz, SMS bidez edo operadoreak ezar ditzakeen beste kanal batzuen bidez (SMS bidez edo operadoreak ezar ditzakeen beste kanal batzuen bidez jakinaraztea (operadoreak kanal bakoitzean komunikazioak ezartzeko aukera gordetzen du, zerbitzu bakoitzaren arabera): parte-hartzaileak adierazi ahal izango du jakinarazpenak jaso nahi dituen, bere borondatez eta erabat doan, SELAEk egiten dituen inkestetan parte hartzeko, SELAErentzat eta erabiltzailearentzat aurrez aurreko eta online jokoaren alderdi desberdinei buruzko informazio erabilgarria biltzeko. Horretarako parte-hartzailearen baimena behar da. Jakinarazpen horiek ez dute inolako kargu edo betebeharririk parte-hartzailearentzat.

Komunikazio horiek komunikazio komertzialtzat dira, eta horregatik, erabiltzailearen erregistroa etena dutenek ez dituzte jasoko, aurreko E) v ataleko lehenengo atalean xedatutakoaren arabera (Debeku subjektiboagatik edo norbere burua baztertzegatik etetea). Halaber, joko-araudian ezarritako komunikazio komertzialak bidaltzeko beste muga batzuk ere aplikatu daitezke, komunikazio komertzial motaren eta hedapen moduen arabera.

I) PARTE HARTZAILEAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Joko-kontratuaren indarraldian, parte-hartzaileak eskubide hauek izango ditu:

- a) Parte hartu nahi duen joko-arauei buruzko informazio argia eta egiazkoa izatea.
- b) Dagozkion sariak jasotzea ezarritako denboran eta moduan, joko bakoitzaren berariazko araudiaren eta SELAEren online joko araudiaren arabera.
- c) Bere titulartasuneko banku-kontua komunikatzea/deklaratzea eta eguneratuta izatea, hala badagokio, sariak jasotzeko.
- d) Bere interesetan eragina izan dezaketen operadorearen erabakien aurka erreklamazioak egitea DGOJren aurrean.
- e) Jokoaren prezioari dagokion erabilera-denbora erabiltzea, SELAEk joko mota hau merkaturatzen duenean.
- f) Askatasunez jokatzeko, operadorearen, beste jokazaleen edo beste edozeinen hertsapenik edo mehatxurik gabe.

- g) Jokatu edo apustu egin duen zenbatekoa edozein unetan jakitea, eta operadorean joko-kontua irekia izanez gero, horren saldoa ezagutzea.
- h) Bere burua modu seguruan identifikatzea operadoreak horretarako ezarritako prozeduren arabera.
- i) Datu pertsonalen tratamenduari eta babesari buruzko informazio egokia jasotzea, beharrezkoa denean baimena ematea eta bere eskubideak erabiltzea, Datuen Babesari buruzko indarreko araudiaren arabera, aurrerago zehazten den bezala.
- j) Operadorearen identitatea uneoro ezagutzea.
- k) Jokoa jokoera arduratsuari buruzko informazioa jasotzea.

Joko-kontratuaren indarraldian, parte-hartzailearen betebeharrak hauek izango dira:

- a) Jokoen garapen normala ez aldatzea.
- b) Beste parte-hartzaileekiko eta joko operadorearekiko zintzotasunean, fede onean eta errespetuan oinarritutako jokabidea izatea, eta operadoreak eskuragarri dituen funtzionalitateak ez erabiltzea SELAEren jokoetan parte hartzea ez den jardueretarako.
- c) Parte-hartzaileei dagokienez, jokoen erregelamenduan ezartzen diren arauak eta erregelamendua betetzea.
- d) Erabiltzailearen erregistroa hirugarrenei ez ematea, ezta horren baimenik gabeko erabilera erraztea ere.
- e) Beste jokozaleen joko-kontuetara transferentziarik ez egitea.
- f) Erregistratutako erabiltzailearen baja egitea eta jokoetan berriro ez parte hartzea, baldin eta jokoari buruzko legerian ezarritako debeku subjektiboaren egoeraren batean badago.
- g) SELAEren eskura informazio eta dokumentazio guztia jartzea, SELAEk parte-hartzailea egiaztatzeke eta harekiko behar bezalako arduraz legezko betebeharrak betetzeko (bezeroaren ezagutza).
- h) Joko arduratsuen politikak ezagutzea eta errespetatzea, eta gai honen inguruan SELAEk eskatutakoa betetzea.
- i) Joko-kontratu burutzeko operadoreari emandako informazioa behar bezala eguneratuta mantentzea, erabiltzailearen erregistroaren, kontu korrontearen edo lotutako saltokiaren datuak barne (azken hori erregistratzean beharrezkoa bazen). Bestela, parte-hartzaileak plataformako funtzionalitateen erabilera mugatuta izan dezake, edo erabiltzailearen erregistroa deuseztatu ahalko da

J) OPERADOREAREN BETEBEHARRAK, ERANTZUKIZUNA ETA ESKUBIDEAK

Joko-kontratuaren indarraldian, operadoreak betebeharrak hauek izango ditu:

- a) Erabiltzailearen erregistroaren bidez kontratu honen kopia bat parte-hartzailearen eskura jartzea, baita kontratuak dituen aldaketak eta horiek formalizatzeko eta harreman juridikoa geroago garatzeko berariazko onarpen mekanismo zehatzak ere.
- b) Dagokion, aldizkakotasunarekin, gutxienez urtean behin, eta DGOJk horretarako ezarritako prozedurei jarraituz, erabiltzailearen erregistroa egin duten parte-hartzaileak Jokoa Debekatzeko Erregistro Orokorrean inskribatuta ez daudela egiaztatzea. Era berean, joko jakin batean apustu egitea debekatuta izatea eskatu duten parte-hartzaileei kontrol-neurri zehatzak ezarriko dizkie operadoreak.
- c) Erabiltzailearen erregistroa baliogabetzen denetik sei urteko epean joko-kontratu mantentzea, eta parte-hartzailearen datuak babesteko beharrezko neurri guztiak hartzea.
- d) Parte-hartzailearen berariazko baimena eskatzea kontratua aldebakarrez aldatzen denean edo operadorearen berrikuntza subjektibo gertatzen denean.
- e) Mugimenduen xehetasun analitikoak gordetzea, parte-hartzailearen joko-kontuari dagokionez, sei urteko epean egindako apustuekin.
- f) DGOJk ezarritako maiztasunarekin, joko-kontuaren erabilera zuzena aldizka egiaztatzea. Halaber, hura erabiltzean arau-hausteak edo irregulartasunak gertatu direla detektatzen badu, horren berri ematea DGOJri eta Kapital-zuritzea eta Arau-hauste monetarioak ekiditeko Batzordeko Zerbitzu Exekutiboari.
- g) Eragiketa guztiak berehala joko-kontuan erregistratzea, karguen eta kredituen bidez; horrek barne hartzen ditu identifikazio osorako elementuak eta, bereziki, apustuei, irabaziei, itzulketei, diru sarrerei, diru ateratzei edo jasotako hobariei buruzkoak.

- h) Sariak ordaintzea jokoaren arau partikularretan ezarritako prozedura eta ordainketa moduaren bidez, parte-hartzailea jokoetan parte hartzeko debeku subjektiboren batean egon ezean, edo eragozten duen indarreko araudiaren arabera beste egoeraren batean egon ezean.
- i) DGOJri jakinaraztea parte-hartzailearen identifikazio-datuak, baldin eta bidegabe jokatzen badu edo joko-kontuan kreditu-txartelak iruzurrez erabili baditu, une bakoitzean aplikatu beharreko araudiaren arabera.
- j) Parte-hartzaileak jokoen garapen arruntaz besteko xedeetarako erabilitako kontu korrontean gordailatutako zenbatekoak ez erabiltzea.
- k) Erabiltzailearen erregistroetan dauden datuen egiazkotasuna bermatzea eta horiek aldizka erkatzea, DGOJk ezarritako baldintzetan.
- l) Joko-arduratsurako gidalerroak eguneratuta edukitzea.
- m) Parte-hartzaileak ez duela joko-arduratsuekin bateraezina den jokabiderik edo jokabide arrikutsurik egiaztatzea, SELAEk ezarritako eredu eta gidalerroen arabera; orobat, jokabide hori antzematen bada, parte-hartzaileari jakinaraztea, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Joko-kontratuaren indarraldian, operadoreak eskubide hauek izango ditu:

- a) Parte-hartzailea kautelaz etetea, E atalean aurreikusitako edozein etenaldi-kasutan badago.
- a) Parte-hartzailea behin betiko ezeztatzea, E atalean aurreikusitako edozein baliogabetze-kasutan badago.
- c) Parte-hartzaileei galdeketa edo inkestak bidaltzea, horietan nahi badute parte har dezaten, datuak biltzeko eta horiekin SELAEk joko arduratsuko gaiak eta/edo jokoen nagusitasuna azter ditzan.

K) JOKO KONTRATUA AMAITZEKO KAUSAK

Honako hauek izango dira joko-kontratua amaitzeko kausak:

- Erabiltzailearen erregistroa eta dagokion joko-kontua bertan behera uzteko arrazoiren bat gertatzea.
 - Parte-hartzaileak kontratu-harremana aldatzeko berriazko baimenik eman ez izana, kontratua aldebakarrez aldatzen denean edo operadorearen berrikuntza subjektibo gertatzen denean.
 - Operadoreak joko-jarduera gauzatzeko tituluak galtzea.
- Joko-kontratua amaitzeak berarekin dakar:
- Egiteke egon litezkeen joko-eragiketa edo eragiketa-ekonomiko guztien likidazioa. Halere, kontratua amaitzeko arrazoirenen arabera bidezkoa denean, operadoreak ahalmena izango du sarien ordainak ukatzeko edo joko-kontuko zenbatekoen deskarga ukatzeko.
 - Parte-hartzailearen erabiltzailearen erregistroa ezabatzea. Parte-hartzailearen datu pertsonalak ezeztatuko dira, eta blokeatuta egongo dira, hala denean, behin betiko ezabatzeko.

Joko-kontratua amaiera adostu ahal izango da, alderdien interesak defendatzeko zuzenbidean bidezkoak izan daitezkeen beste ekintza batzuk gauzatzeko kalterik gabe, hala nola kalte-galeren erreklamazioa.

L) JOKO KONTRATUAREN ERAGINKORTASUNA ETA IRAUPENA

Kontratu hau indarrean sartuko da parte-hartzaileak berriaz onartzen duen unetik aurrera, dagokion laukia markatuta. Kontratuaren indarraldia mugagabea da, aurreko atalean adierazitako kausaren batengatik amaitzen ez den bitartean.

Kontratuaren edukia operadoreak aldebakarrez aldatzen badu edo horren berritasun subjektiboa gertatzen bada, kontratu berriak jatorrizkoa ordezkatzeko du parte-hartzaileak berriaz hori baimentzen duenean; baimen hori operadoreak horretarako eskaintzen dituen bitarteko bidez emango da eta kontratu-harremanak jarraituko du. Parte-hartzaileak baimenik eman ez badu,

kontratua amaituko da. Operadoreak parte-hartzaileari jakinaraziko dio zer epe duen baimena emateko, kontratua amaitu aurretik.

M) DATU PERTSONALEN KATEGORIA

Informazio orokorra

Kontratu honen helburua betetzeak berekin dakar SELAEk erabiltzailearen datu pertsonalak (“**datu pertsonalak**”) tratatzea. SELAEk adierazten du erabiltzaileak bere datu pertsonalen tratamenduaren inguruan dituen funtsezko eskubideak zorrotz babesten dituela, eta indarrean dagoen araudia betetzen duela.

Datu Pertsonalen babesaren inguruko araudiari eta betetzeari buruz, hauek identifikatzen dira, besteak beste:

- Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2016/679 Araua, Datu Pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesten dituen eta datuen zirkulazio askea arautzen dituen (“**DPAO**”).
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalen babesekoa eta eskubide digitalen bermearen ingurukoa (“**LOPDGDD**”).
- Baita aplikatu beharreko garapen-araudia ere.

Tratamenduaren xedea erabiltzailearen SELAEren jokoetan parte hartzearen eragiketen kudeaketa, merkataritzakoa eta legezkoa egitea da, parte-hartze hori identifikatzen denean eta, ondorioz, Plataformaren erabilerarena ere.

Erregistroaren tratamenduan urrats desberdinak daudela jakinarazten da (erabiltzailearen erregistroari buruzko E) atalean zehaztutakoak). Lehena, erregistroko datuak egiaztatzearekin eta erregistroa egiteko ahalmenarekin dago lotuta, DGOJi egindako kontsulta automatikoaren bidez; horretarako, ezinbestekoak diren datuak baino ez dira biltzen. Erabiltzailearen erregistroa posible bada, bigarren urratsa jarraitu behar da, eta, horretarako, datu osagarriak (baina behar-beharrezkoak) jaso behar dira, eta joko-kontratua sinatu.

Erabiltzailea onartzen ez bada, interesdunak SELAeri laguntza eskatu ahal izango dio eta, edozein kasutan ere, eskubidea izango du erabakia modu automatizatuan ez egiteko.

Erabiltzaileak hainbat datu pertsonal zuzendu eta egunera ditzake plataformaren bidez, autozerbitzu moduan. Aldaketak Bezeroentzako Arreta Zerbitzuaren bitartez ere eskatu ahal izango dira - izan kontua eskaera horiek zerbitzu eskaera giza izapidetuko direla eta ez datuen babeseko eskubide gisa.

Jarraian, Datu Pertsonalen erabileraren inguruko informazioa ematen da, geruzen teknika bitartez:

I. geruzako informazioa

Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa	
Erreferentzia	Informazioa
Tratamenduaren erantzulea	SOCIEDAD ESTATAL LOTERÍAS Y APUESTAS DEL ESTADO, S.M.E., S.A. (SELAE) – A86171964
Xedeak	<p>SELAEren jokoetan parte-hartzearen kudeaketa parte-hartzea Plataformaren bitartez identifikatzen denean, non Plataformaren erabilerarekin lotutako arloak sartzen diren, adibidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Altak, aldaketak eta bajak erlazioan eta, ondorioz, plataforman. - Erostea, ordaintzea eta sariak kobratzea, joko modu guztietan,

	<p>bakarka edo taldean.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Laguntza eta erabiltzailearen eta SELAEren arteko harremana, laguntza, informazioa, kexak, iradokizunak, zoriontzak eta erreklamazioak barne. - Plataformaren funtzionaltasunarekin, kalitatearekin eta segurtasunarekin zerikusia duten jarduerak, besteak beste, zerbitzuari buruzko inkestak, erabiltzaileen kontuak blokeatzea eta cookieak nabigatzailean instalatzea, ezarritako cookie-politikaren arabera. - Lege-betetzeari lotutako jarduerak, Jokoaren Legearen, Kapitala zuritzearen prebentzioa, Iruzuraren prebentzioa barne, eta aplikagarri diren arauen alderdi desberdinak ere, Datu Pertsonalen eskubideen kudeaketa barne. - Identifikazioarekin eta dokumentu-egiaztapenarekin lotutako jarduerak. - Erabiltzaileen jokabide arriskutsuak atzemateko jarduerak, eta joko-jardueren komunikazio komertzialei buruzko azaroaren 3ko 958/2020 Errege Dekretutik eratorritako bestelako betebeharrak. - Jokoak hobetzearekin eta haien bilakaerarekin lotutako jarduerak, datuen banaketa jarduerak, ikerketa estatistikoak eta datuen analisia/big data barne. - Jokoaren kudeaketa arduratsuekin eta erabiltzailearen joko arduratsurako laguntzarekin lotutako jarduerak. - SELAEren barne prozesuen kudeaketa. - Zerbitzu osagarriak ematea, zenbait kasutan, informazio eta merkataritza jakinarazpenak, interesdunak eskatuta beti ere.
<p>Legitimazioa. Oinarri juridikoa</p>	<p>Hauetara tratamenduaren lege-oinarriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kontratua exekutatzea. - Lege-obligazio bat betetzea. - Interesdunaren baimena, tratamenduek beharrezkoa dutenean. - Legezko interesa.
<p>Hartzaileak</p>	<p>Parte hartzaileak eta SELAEk produktuak kobratzeko eta sariak ordaintzeko erabiltzen dituzten Finantza-entitateei komunikazio ekonomikoak (kobratzeko eta ordaintzeko tresnen Bankuak eta kudeatzaileak).</p> <p>Beste entitateei ez zaie jakinarazpenik egingen, salbu eta obligazioz edo legezko beharrez egiten diren jakinarazpenak, honako hauei, besteak beste:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jokoaren Ordenazioko Zuzendaritza Orokorra (“DGOJ”). - Zerga-agintariak. - Beste batzuk, tartean SEPBLAC, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoak, Epaileak, Fiskaltza, Epaitegi eta Auzitegiak eta beste Herri Administrazio edo Agintariak, euren eskumenak behar dituztenean. - Beste batzuk, notarioak, prokuradoreak, fede-emaileak eta abokatuak. <p>Zerbitzu hornitzaileak ere erabil daitezke SELAEren izenean zerbitzuak hauek eskaintzeko: plataformaren funtzionaltasun, kalitate eta segurtasun auditoretza, plataformaren estatistika-azterketak eta analisia.</p>

	<p>Ez da nazioarteko transferentziarik egingo (Europako Esparru Ekonomikotik kanpoko hirugarren herrialdeei edo nazioarteko erakundeei datu pertsonalen transferentzia edo jakinarazpena).</p> <p>SELAEk tratamendurako arduradunak izan ditzake, bai Europako Esparru Ekonomikoan, eta bai Europako Batzordeak maila egokitzat hartzen dituen edo berme egokiak dituzten herrialdeetan.</p>
Eskubideak	Datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea du, eta baita beste eskubide batzuk ere, ondoko informazio osagarrian azaltzen den bezala.
Datuen jatorria	Interesduna. DGOJ, parte-hartzailearen erregistroaren bideragarritasuna eta jokatzeko gaitasuna baloratzeko. Interesdunaren banku-entitateak.
Informazio gehigarria	Datuen babesari buruzko informazio osagarria eta xehatua aurkituko du ondoko informazio osagarrian.

II geruzako informazioa edo informazio osagarria

Datu pertsonalak babesteko aplikazio araubidea

Kontratu hau betetzeko datu pertsonalak tratatu behar dira, eta, datu pertsonalen (“**datu pertsonalak**”) babeserako arauak betetzeko honako hauek identifikatzen dira:

- Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2016/679 Araua, Datu Pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesten dituen eta datuen zirkulazio askea arautzen dituen (“**DPAO**”).
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalen babesekoa eta eskubide digitalen bermearen ingurukoa (“**LOPDGDD**”).
- Baita aplikatu beharreko garapen-araudia ere.

Tratamenduaren arduradunaren nortasuna

Aplikatzekoa den araudiaren arabera, erabiltzailearen datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna SOCIEDAD ESTATAL LOTERÍAS Y APUESTAS DEL ESTADO, SME, SA da (aurrerantzean, “**SELAE**”), eta haren harremanetarako datuak kontratu honen hasieran aurki daitezke, baita hemen ere:

SOCIEDAD ESTATAL LOTERÍAS Y APUESTAS DEL ESTADO, S.M.E., S.A. (SELAE)
IFZ: A-86171964

Helbidea: Poeta Joan Maragall kalea, 53, 28020 Madril.

Telefono-zenbakia: 900 11 23 13 / 91 596 23 00 (Bezeroarentzako arreta zerbitzua)

Datuen Babeserako Ordezkariekin kontaktua:

- Posta helbidea: SELAE, Erregistroa, “Protección de Datos”, C/ Poeta Joan Maragall 53, 28020 Madrid
- Helbide elektronikoa: inprimakia <https://www.loteriasypuestas.es/es/contacto-proteccion-datos>

SELAEk aitortzen du errespetatu egiten dituela datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen araudiko aginduak, eta, zehazki, datu pertsonalak isilpean gordetzeko betebeharrari eta babesari buruzkoak; halaber, aitortzen du aplikatu beharreko legeriarekin bat datozen neurri teknikoak eta antolaketa-neurriak aplikatzen dituela.

Tratamenduaren xedeak:

Helburua mugatzeko printzipioa betetzeko, SELAEk datu pertsonal egokiak, egokiak eta mugatuak eskatu eta tratatuko ditu, bildu diren xedeetarako bakarrik. Helburu hauek zehaztuak, esplizituak eta bidezkoak dira. Hauek dira bildutako datuak eta haien xede zehatza, haiek gordetzeko epearekin eta haiek ez ematearen ondorioak:

SELAEren jokoetako parte-hartzearen kudeaketa, parte-hartzea plataformaren bidez identifikatzen denean, plataformaren erabilerari lotutako alderdiak biltzen ditu, adibidez, hauek:

- Altak, aldaketak eta bajak erlazioan eta, ondorioz, plataforman.
- Erostea, ordaintzea eta sariak kobratzea, joko modu guztietan, bakarka edo taldean.
- Laguntza eta erabiltzailearen eta SELAEren arteko harremana, laguntza, informazioa, kexak, iradokizunak, zoriontzeak eta erreklamazioak barne.
- Plataformaren funtzionaltasunarekin, kalitatearekin eta segurtasunarekin, jokoan hobekuntza eta garapenarekin zerikusia duten jarduerak, besteak beste, zerbitzuari buruzko inkestak, erabiltzaileen kontuak blokeatzea, datuak bereizteko jarduerak, estatistika-azterketak eta analisia/big data eta cookieak nabigatzailean instalatzea, ezarritako cookie-politikaren arabera.
- SELAEren barne prozesuen kudeaketa

Legea betetzearekin lotutako jarduerak, identifikazioa eta dokumentuen egiaztapena barne, eta gainerako alderdi eta betebeharrak, hauetatik eratorriak: (i) Jokoa Arautzeko maiatzaren 27ko 13/2011 Legea, (ii) Kapital-zuritzea eta terrorismoaren finantzazioa prebenitzeko apirilaren 28ko 10/2010 Legea, (iii) abenduaren 17ko Zerga Orokorren 58/2003 Legea, eta aplikatu daitezkeen edozein beste arauzko alderdi, datu pertsonalen eskubideen kudeaketa barne. Kapital-zuritzea prebentzioaren kasuan, tratamendua egingo da produktua erosteko eta/edo irabazitako sariak kobratzeko prozesuan.

Erabiltzaileen jokabide arriskutsuak atzemateko jarduerak, eta joko-jardueren komunikazio komertzialei buruzko azaroaren 3ko 958/2020 Errege Dekretutik eratorritako bestelako betebeharrak.

Jokoaren kudeaketa arduratsuekin eta erabiltzailearen joko arduratsurako laguntzarekin lotutako jarduerak, adibidez, borondatez parte hartzeko inkestak.

Zerbitzu osagarriak ematea, zenbait kasutan, informazio eta merkataritza jakinarazpenak, interesdunak eskatuta beti ere.

Xedeen arabera tratatutako datu pertsonalen kategoriak

1. SELAEk bildutako datu pertsonalak DGOJn erabiltzailearen identitatea eta parte hartzeko aukera egiaztatzean (ez dira gordeko erregistroa osatzen ez bada):

- Izena eta bi abizenak (bigarren abizena, hautazkoa).
- Jaiotze-data: eguna, hilea, urtea.
- AIZ edo IFZ
- Tratamendua (Jn. And.)
- Captcha emaitza edo neurri baliokidea

2. Erregistroa osatzeko SELAEk jasotako datu pertsonalak:

- Posta elektronikoa
- Pasahitza
- Segurtasun-galdera
- Isileko erantzuna
- Bizileku-herria
- Helbidea, posta-kodea barne
- Zerga-egoitza
- Hiritartasuna
- Telefono zenbakia (aukerakoa, faktore bikoitzeko autentifikazioa bermatzeko erabil daiteke)
- IBAN kodea, sariak ordaintzeko
- Lotutako saltokiaren identifikatzailea eta helbidea
- Irudia/ahotsa, nortasun agiriarekin eta ahots grabazioarekin lotutakoak, SELAEri egindako deietarako edo sariak ordaintzeko (azken kasu honetan, bere baimenarekin).
- Dokumentuen egiaztapenaren emaitza eta baliozko data.

3. Joko arduratsurako araudia betetzeko bildutako datu pertsonalak:

- Joko arduratsuari eta/edo lehentasunari buruzko galdetegiaren edo inkestaren emaitzak
- Joko arduratsurako beharrezko ataletara sarbidea (bai/ez)

4. Helburu komertzialerako bildutako datu pertsonalak:
 - Izena (abizenik ez).
 - Helbide elektronikoa (kanala aktibatuta badago).
 - Telefono zenbakia (kanala aktibatuta badago).
 - Jaioteguna (inkestak).

5. Joko arduratsurako araudia betetzeko eraturako datu pertsonalak:
 - Arriskupeko jokozalea (Bai / Ez).
 - Atzemateko datak.

6. Kapital-zuritzea prebenitzeko araudia betetzeko eta joko-kontratu hau betearazteko bildutako datu pertsonalak:
 - Bezeroa hobeto ezagutzeko inprimakia.

7. Hirugarrenen eskutik jasotako datu pertsonalak, lagapenen bitartez, aurreko helburuetarako:
 - Jokorako onarpena (DGOJ).
 - Finantza-erakundeen transferentziak.

8. Erabiltzaileak plataforma erabiltzearen ondorioz sortu daitezkeen datuak:
 - Lotutako identifikatzaileak (PlayerID, B-ID)
 - Egindako apustuak.
 - Jasotako sariak.
 - Diru-sarrerak eta ordainketak.
 - Taldeko apustuak.
 - Partaidetza-taldeak.
 - Blokeo egoera.
 - SAC erregistroak.
 - Eskubideak erabiltzea.
 - Finantza entitateekin eragiketarako egiteko token-a.

Gordetzeko epea

Erabiltzailea plataforman erregistratuta dagoen bitartean tratatuko dira datu pertsonalak eta, tratamenduaren oinarri juridikoa baimena den kasuetan, erabiltzaileak baimena erretiratu edo ezeztatu ez duen bitartean. Plataforman baja bideratzen denetik, edo baimena kentzen denetik, kontratua amaitutzat joko da eta datu pertsonalak blokeatuta egongo dira, kasu bakoitzean legezko inposizioak direla eta kontserbazio epea amaitu arte; dena dela, 10 urteko epea ez du gaudituko, kapital-zuritzea prebenitzeko araudian ezarritakoa bermatzeko.

Erabiltzaile batek plataforma araudiaren aurka erabiltzen badu eta baja bideratzen bada, SELAEk blokeatutako kontuen zerrandan sartu ahalko du, gutxienezko oinarrizko datu pertsonalekin, hura identifikatzea posible izan dadin eta berriro plataforman harpidetzea eragozteko.

Datuak EZ ematearen ondorioak

Erabiltzailearen identitatea DGOJrekin egiaztatze beharrezko eta derrigorrezko datuak ematen ez baditu, edo erregistratzeko beharrezko datuak ematen ez baditu, erabiltzailearen erregistroa ez da gauzatuko, eta, ondorioz, SELAE jokoetan ezingo du parte hartu.

Jokoaren arautik eratorritako legezko betebeharrak betetzen direla bermatzeko ezinbestekoa den identifikazio informazioa emateari uzten badiu, SELAEk erabiltzailearen kontua etengo du, eta erabiltzaileak ezingo du SELAEren jokoetan parte hartu.

Halaber, plataforman erregistratzeko unean lotutako saltokiaren identifikatzaileari eta helbideari buruzko informazioa ematea derrigorrezkoa bazen, eta ondoren informazio hori eguneratzen ez badu, ezin izango du loteria nazionalen parte hartu.

Telefono zenbakia ematen ez bada (aukerako datua baita), ezingo da faktore bikoitzeko autentifikazioa erabili, ezingo da funtzionalitatearekin, kalitatearekin eta segurtasunarekin lotutako jakinarazpenik jaso, eta ezingo da interesdunak eskatutako jakinarazpen informatibo eta komertzialak dituzten zerbitzu osagarrietan sartu.

Tratamenduaren oinarri juridikoak:

Tratamenduaren oinarri juridikoak hauek dira:

- Joko-kontratu hau gauzatzea.
- Legezko obligazioak eta beharrak betetzea: (i) Jokoa Arautzeko maiatzaren 27ko 13/2011 Legea ("Joko Legea"); (ii) Kapital-zuritzea eta terrorismoaren finantzazioa prebenitzeko apirilaren 28ko 10/2010 Legea; (iii) abenduaren 17ko Zerga Orokorren 58/2003 Legea; (iv) azaroaren 3ko 958/2020 Errege Dekretua, joko-jardueren komunikazio komertzialei buruzkoa; eta (v) Zerga iruzurrak prebenitzeko eta horien aurka borrokatzeko neurrien Lege Proiektua, 2016ko uztailaren 12ko Kontseiluaren 2016/1164 (EB) Zuzentarauaren transposizioa, barne merkatuaren funtzionamenduan eragina duten zerga iruzurraren praktiken aurkako arauak ezartzen dituen, eta zerga araudi eta joko araudi desberdinak aldatzen dituen; eta (vi) azaroaren 3ko 958/2020 Errege Dekretua, joko jardueren komunikazio komertzialei buruzkoa.
- SELAEri aplikatuko zaizkion beste arauak.
- Erabiltzailearen baimena.
- Legezko interesa.

Kontratua gauzatzeko eta legezko betebeharrak betetzeko oinarri juridikoa da erabiltzailearen parte hartzea eta plataformaren erabilera.

Kontratuan zehaztutako edo plataformak eskainitako bestelako oinarri juridikoetan eta zerbitzu osagarrietan egokitu gabeko zerbitzuei aplikatuko zaie baimenaren oinarri juridikoa, baldin eta baimena behar badute. Erabiltzaileak, horretarako, erabiltzailearen eremuko panelaren bidez kudea ditzake zerbitzu horiek, eta, oro har, jokoaren sektoreko SELAEren produktu eta zerbitzuei buruzko informazio edo komunikazio komertzialen igorpenari buruzkoak dira.

Datu pertsonalen jasotzaileak

Datu pertsonalak hurrengoek lagatzea aurreikusten da:

1. Parte hartzaileak eta SELAEk produktuak kobratzeko eta sariak ordaintzeko erabiltzen dituzten Finantza-entitateei komunikazio ekonomikoak (kobratzeko eta ordaintzeko tresnen Bankuak eta kudeatzaileak).
2. Legezko beharrez entitateei egindako komunikazioak, hauei, besteak beste:
 - Jokoaren Ordenazioko Zuzendaritza Orokorra ("DGOJ"), Jokoaren sektorearen erakunde antolatzaile eta gainbegiralea. Jakinarazpenak SELAEk bere eginkizunak betetzeko eta araudia betetzeko, besteak beste, identitatea egiaztatzea eta debeku subjektiboak, jokoa kontrolatzea eta, hala dagokionean, beste lege-betebehar edo errekerimendu batzuei erantzutea.
 - Zerga Agintaritzak, Zerga Administrazioaren Estatuko Agentzia eta dagozkien autonomia erkidegoetakoak barne, sari handietan egindako atxikipenen ordaintzeko eta legez ezarritako zerga betebehar guztiak betetzeko.
 - Beste batzuk, tartean SEPBLAC, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoak, Epailak, Fiskaltza, Epategi eta Auzitegiak eta beste Herri Administrazio edo Agintariak, euren eskumenak behar dituztenean. Komunikazioa egiteko, beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztu beharko da.
 - Besteek, notarioak, prokuradoreek, fede-emaileek eta abokatuek, SELAEren interesen lege-defentsarako behar juridikoei aurre egiteko.
3. Zerbitzu-hornitzaileak ere erabil daitezke kontratuaren xede den zerbitzua SELAEren izenean emateko, batez ere IT zerbitzuak emateko, komunikazioak eta jakinarazpenak bidaltzeko edo auditoretza, kudeaketa eta aholkularitza zerbitzuetarako.
4. Ez da nazioarteko transferentziarik egingo (Europako Esparru Ekonomikotik kanpoko hirugarren herrialdeei edo nazioarteko erakundeek datu pertsonalen transferentzia edo jakinarazpena).

5. SELAEk tratamendurako arduradunak izan ditzake, bai Europako Esparru Ekonomikoan, eta bai Europako Batzordeak maila egokitzat hartzen dituen edo berme egokiak dituzten herrialdeetan.

Eskubideak erabiltzea eta Datuen Babeserako ordezkariarekin harremanetan jartzeko datuak
Erabiltzaileak eskubidea du SELAEren aurrean datu pertsonalekin erlazionatutako eskubideak erabiltzeko.

SELAEk, tratamenduaren arduradun den aldetik, interesdunei bermatzen die legeak ezartzen dituen eskubideak erabiltzeko aukera dutela, aplikagarri den araudian ezarritakoaren arabera. Eskubide horiek hauek dira:

- Datu pertsonalak eskuratzeko eskubidea. Erabiltzaileek edozein unetan eskura ditzakete beren datu pertsonalak eta SELAERI datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa eska diezaizkete.
- Datu pertsonalak zuzentzeko edo ezabatzeko eskubidea. Erabiltzaileek datu pertsonalen zuzenketa eskatzeko eskubidea izango dute, zehaztugabeak edo osatugabeak direnean.
- Ezabatze eskubidea. Erabiltzaileek eska dezakete beren datu pertsonalak ezabatzea eta tratatzeari uztea, baldin eta jasotako helburuetarako beharrezkoak ez badira edo baimena kentzen badute, edo legez kontra edo legez ezarritako beste modu batean tratatu badira.
- Tratamendua mugatzekoa eskubidea. Erabiltzaileek eskubidea izango dute beren datu pertsonalen tratamenduaren mugapena eskatzeko, legez ezarrita dagoenean.
- Tratamenduaren aurka egiteko eskubidea. Erabiltzaileek datu pertsonalak tratatzearen aurka egin dezakete komunikazio komertzialak bidaltzeko, legez ezarritakoa denean.
- Datuak eramateko eskubidea. Erabiltzaileek eskubidea izango dute beren datu pertsonalak modu egituratuan jasotzeko, normalean erabiltzen den eta makinaz irakur daitezkeen formatuan, eta beste datu arduradun bati igortzeko.
- Erabaki automatikoak baztertzeko eskubidea eta gizakiaren esku hartzea eskatzeko eskubidea; bere ikuspuntua adierazteko eskubidea edo erabaki baten aurka joateko eskubidea, betiere legezko betebeharrak bat betez hartu ez bada.
- Baimena kentzeko eskubidea, tratamenduaren legezko oinarria denean. Erabiltzaileek edozein unetan emandako baimena kendu ahal izango dute, hori denean tratamenduaren oinarri juridikoa. Baimena kentzeak ez du eraginik izango hura kendu aurretik emandako baimenean oinarritutako tratamenduaren legezotasunean.
- Indarrean dagoen araudiak biltzen dituen gainerako eskubideak.

Erabiltzaileak bere eskubideak erabil ditzake:

- a) postaz, helbide honetara behar bezala sinatutako eskakizuna bidalita: SELAE, Erregistroa, "Protección de Datos", C/Poeta Joan Maragall 53, 28020 Madril, "Ejercicio de Derechos" erreferentziarekin, eta argi eta garbi azalduta zein eskubideri dagokion, zer eskatzen den edo zer eskubide erabili nahi den, eta izena, abizenak eta SELAEk erantzuteko posta helbidea adierazita; orobat, indarrean dagoen nortasun agiriaren kopia bidali beharko da (NAN, AIZ, Pasaportea edo gidatzeko baimena), bi aldeetatik, zehazki identifikatzeko. SELAEk datu pertsonal horiek legea betetzeko lege-oinarriaren arabera tratatuko ditu, eskubideei erantzuna emateko helburu bakarrarekin.
- b) Edo, Datuen Babeserako Ordezkariekin harremanetan jartzeko inprimakiaz baliatuta eskaera bidalita: <https://www.loteriasyapuestas.es/es/contacto-proteccion-datos>. Eskubideen erabilera tramitzeko, ezinbestekoa da indarrean dagoen nortasun agiriaren bi aldeetako irudia aurkeztea. Postontzi egonkor bateko harremanetarako helbide elektronikoa eman behar duzu, jakinarazpenak jaso eta SELAEk erantzuna bidali ahal izateko. Eskubidea duzu, baita ere, SELAEren Datuen Babeserako Ordezkariekin harremanetan jartzeko; horretarako, aurretik adierazi ditugun baliabideak erabili ditzakezu. Erabiltzaileak eskubidea du eman duen baimena nahi duenean ukatzeko, eta horrek ez du eraginik izango hura kendu aurretik emandako baimenean oinarritutako tratamenduaren zilegitasunean. Aldaketak egiteko zure eskura dituzu plataformako hautatze-paneleko autozerbitzua, bezeroentzako arreta zerbitzua eta Datuen Babeserako Ordezkaria.

Kontrolako agintari baten aurrean erreklamazioa jartzea

Parte-hartzaileek eskubidea dute Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren babesa jasotzeko, datuen babesari buruzko araudia betetzen dela kontrolatzeaz arduratzen den agintaritza independentea.

Erabaki automatizatuak egotea (profilak egitea barne)

Ez da jokoaren legeak eta araudi aplikagarriak ezartzen ez duen profilik sortuko. Zentzu horretan, erregistratzeko unean eta kontratu-harremanaren indarraldian, prozesu automatiko hauek burutuko dira:

- Erabiltzaileak emandako datuak DGOJrekin alderatu eta, haien sistemen argibideei jarraituz, erabiltzailearen erregistroa ukatu edo onartu.
- Identifikatzeko dokumentuak egiaztatu.
- RGIAJn (Jokatze Debekuen Erregistro Orokorra) dagoen egiaztatu.
- RPVOJn (Joko-operadorearekin Lotutako Parte-hartzaileen Erregistroa) dagoen egiaztatu.
- Erabiltzaileak plataformaren erabilerari buruzko araudia betetzen ez duela egiaztatu.
- Lau urtez jarduerarik gabe egon diren erabiltzaileak automatikoki ezabatu.
- Erabiltzaileen jokabide arriskuak atzeman, eta joko-jardueren komunikazio komertzialei buruzko azaroaren 3ko 958/2020 Errege Dekretutik eta Kapital-zuritzea prebenitzekotik eratorritako bestelako betebeharrak.
- Parte-hartzaileak eteteko edo ezeztatze kausarik ez duela egiaztatu, E) atalean adierazitakoaren arabera.

Aurrekoaz gain, Kontratu honek irauten duen bitartean, erabiltzailearen erregistroaren, joko-kontuen eta, oro har, plataformaren funtzionalitate guztiak edo batzuk eskura ezin edo blokeatuta egon daitezke aldi baterako, bereziki honako egoera hauetan: saioa hasteko gehieneko saiakera-kopurua gainditu denean, pasahitzak berrogeialdian daudenean, pasahitzak aldatzen ari direnean eta antzeko etenaldietan.

Erabaki horietako batzuekin ados ez badago, erabiltzailea bezeroaren arreta zerbitzuarekin harremanetan jar daiteke, aurretik adierazitako eskubideak gauzatzeko mekanismoen bidez.

Datu pertsonalen jatorria

Datu guztiak interesdunaren bitartez jasoko dira, hauexek izan ezik:

- Parte-hartzailearen erregistroaren bideragarritasuna eta joko-gaitasunaren inguruko egoera (jokatze debekurik ez izatea); informazio hori Jokoa Antolatze Zuzendaritza Nagusiak emango du.
- Interesdunaren banku-erakundeak.

N) JAKINARAZPENAK. BEZEROAREN ARRETA ZERBITZUA:

SELAEk harremanetarako baliabide ezberdinak jartzen ditu parte-hartzailearen eskura, gai hauen inguruko zalantzak ebazteko: plataforma, erabiltzailearen erregistroa (pasahitza galdu, lapurtu edo baimenik gabe erabili izana, erabiltzailearen erregistroa bertan behera uztea, etab.), online apustuak, sariak, SELAE edo kontratu hau. Horien bidez kexak eta erreklamazioak aurkez daitezke ere bai. Datu pertsonalen babesari buruzko atalean adierazitakoaz gain, parte-hartzaileek bitarteko hauek dituzte:

- Formularioa webgunean: www.loteriasyapuestas.es (<https://www.loteriasyapuestas.es/es/contacto>), erabiltzaileek erraz aurkituko dute, eta jasotzeko data eta ordua erregistratuta geratuko dira.

Telefono bidezko deia: 900 11 23 13 / 902 11 23 13 / 91 596 23 00.

Harremanetarako datu horien aldaketak plataforman argitaratuko dira.

O) LEGEDI APLIKAGARRIA ETA JURISDIKZIOA

Kontratu hau Espainiako legediak arautzen du. Joko-kontratu honen bidez formalizatutako parte-hartzailearen eta operadorearen arteko harremana pribatua da; beraz, haien artean sor

daitezkeen eztabaidak edo tirabirak jurisdikzio zibileko Espainiako epaitegi eta auzitegien mende egongo dira, eta DGOJk zehapen-ahalmena izango du, bere eskumenen esparruan.

Horrek guztiak ez du esan nahi parte-hartzaileak legezko eta kontratuzko auziak ebazteko moduetako batera jotzeko ahalmena ez duenik, operadorearen erabakien aurrean bere eskubide eta interes legitimoak babesteko. Zehazki, bere helbideari dagokion jurisdikzio eskudunera joan daiteke parte-hartzailea. Era berean, kontratu honetatik eratortzen diren kontratu-betebeharrei buruzko erreklamazioak aurkeztu ahal izango ditu operadorearen aurrean zuzenean; hala eta guztiz ere, ebazpenarekin pozik ez badago, auziak ebazteko prozedura aurkeztu ahalko du, auziak konpontzeko Europako online plataformaren bidez (RLL), helbide honetan eskuragarri: <https://ec.europa.eu/consumers/odr/main/> .

P) OROKORRA

i) Operadorearen erantzukizuna:

SELAE ez da plataformaren edo bere edukiaren bidez eskaintzen diren zerbitzuak erabiltzearen ondorioz sortutako zuzeneko edo zeharkako kalte edo galeren erantzule, hala nola, sistema informatikoetan kalteak, aplikazio kaltegarriak sartzeagatik kalteak, birusak edo bestelakoak. Halaber, SELAE ez da izango erantzule plataformaren sarbidean, funtzionamenduan eta erabileran atzerapenak edo akatsak gertatzen badira, ezta zerbitzuetan eta/edo edukietan gertatzen badira ere; eta ez da erantzule ere etenaldiez, atzerapenez edo funtzionamendu okerraz, baldin eta hondamendi naturalek edo ezinbesteko egoerek eragindako matxuren ondorio badira, edo muturreko larrialdien ondorio badira, hala nola grebak, erasoak edo informatika-erasoak, edo beste edozein motatako ezinbesteko egoerak edo zorizko arrazoiak.

ii) Jabetza intelektual eta industrialaren eskubideak:

Plataformaren bidez eskainitako eduki eta zerbitzu guztiak -testuak, informazioa, datuak, softwarea, zeinu bereizgarriak, markak, izen komertzialak, multimedia edukia, grafikoak, irudiak, animazioak, musika sorkuntzak, bideoak, soinuak, marrazkiak, argazkiak, iruzkin guztiak, adierazpenak eta guneko html kodea eta plataformako beste eduki batzuk, eta horiei soilik mugatu gabe (aurrerantzean, "Plataformako edukiak")- SELAEren edo bere lizentziadunen jabetzakoak dira, horietatik eratorritako jabetza intelektual eta industrialaren eskubideak barne. Debekatuta dago parte-hartzaileak plataformaren, plataformaren edukien edo horien zati baten erabilera, erreproduktzioa, transmisioa, eraldaketa, banaketa, komunikazioa edo ustiapena, edozein modutan, hurrengo paragrafoan xedatutakoaren arabera izan ezik.

SELAEk parte-hartzaileei lizentzia mugatu eta ez-esklusiboa ematen die, kontratuak irauten duen bitartean; lizentzia horren azpi-lizentziarik ezin da eman, ezin da transferitu, eta plataforma eta plataformako edukiak erabiltzeko balio du, bertan diren zerbitzuak erabiltzeko. Parte-hartzaileak ezin izanen ditu inolaz ere plataformako zerbitzuak edo plataformako edukiak erabili, erabilera soilik pertsonala ez bada, aurreikusten diren salbuespenetan izan ezik.

Era berean, parte-hartzaileek ezingo dituzte plataforman instalatuta dauden babes-gailuak edo segurtasun-sistemak ezabatu, aldatu, saihestu edo manipulatu.

Parte-hartzaileek aitortzen eta onartzen dute plataforma eta plataformako edukiak erabiltzeak ez dakarrela beren alde plataformaren eta plataformako edukien jabetza intelektual edo industrialaren gaineko eskubideak lagatzea; eta ez dakar plataformatik eta plataformako edukietatik eratorritako garapenak sortzeko baimenik, parte-hartzaileei plataforma eta plataformako edukiak erabiltzeko ematen zaien lizentzia mugatuagatik izan ezik, atal honetan ezarritako baldintzetan.

Bere aldetik, parte-hartzaileek SELAERI pertsonalak ez diren datuak erabiltzeko eskubidea emango diote; eskubide hori ez da eskusiboa eta mugagabea, osoa, besterenezina eta doakoa da, eta azpi-lizentzia behar dezake. Bereziki datu teknikoak izango dituzte, eta datu pertsonalak badituzte, anonimo bihurtu beharko dira.

iii) Hizkuntza.

Joko-kontratu hau gaztelaniaz idatzita dago eta gaztelaniaz sinatzen da. Beste hizkuntza batera egindako itzulpenek balio informatiboa besterik ez dute izango, eta, beraz, gaztelaniazko bertsioa nagusi izango da beti.

iv) Kontratuaren osotasuna

Kontratu honetako klausula bat erabat deusez edo eraginkortasunik gabekotzat jotzen bada, alderdiek kontratuaren osotasuna onartzen dute, eta, beraz, klausula hori edo klausularen zati hori baino ez da baliogabea edo ez-eraginkorra izango. Klausula hori bertan egongo ez balitz bezala jardungo da, eta gainerako klausulek bere horretan jarraituko dute; egoera horrek ez dio kontratuaren balioari eragingo, ez eta alderdien arteko harreman juridikoa iraungiko ere. Aurrekoa, baldin eta kontratuaren funtsezko zati bati eragiten ez badio, zati hori kentzeak aldean arteko elkarrekiko prestazioen orekan murrizketa nabarmena ekar baitezake.

v) Joko-kontratua onartzea:

Parte-hartzailearen ustez, plataforman dagoen informazioa eta plataformaren bidez eskaintzen diren zerbitzuen deskribapena, plataforma erabiltzeko baldintzak eta joko-kontratu hau nahikoa dira onespeneraren eraketan akatsik ez gertatzeko. Parte-hartzaileak berariaz adierazten du joko-kontratu honen edukia erabat eta zalantzarik gabe ulertu eta onartu duela, kontratu aurreko informazio osoa eskuratu duela, eta horretan oinarrituta kontratu hau onartzeko erabakia hartu duela. Horri buruzko edozein zalantza izanez gero, operadorearekin harremanetan jarri ahal izango da N atalean aurreikusitako bitartekoen bidez. Parte-hartzaileak berariaz ezagutu eta onartzen ditu plataformaren eta joko-kontratuaren erabilera-baldintzen edukia, eta berariaz atxikitzen zaio, dagokion laukitxoan markatuta.